

URRETXU-ZUMARRAGA / Liburuaren egunaren inguruan ekitaldi ugari antolatu dituzte

Liburutegiek bultzatuta 'Liburuak Plazara 2008' ekimena martxan jarriko dute datorren astean.

Idoia Luzuriaga

Asteazkenean, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Horren harira Liburuak Plazara 2008 egitasmoa berriro hurbiltzen da Zumarraga eta Urretxura, bi udal liburutegien eskutik. Aurten asteazkenetik hasita hainbat ekitaldi izango dira, beti ere liburuak protagonista izanik eta nagusiki haur eta gaztetxoei zuzenduta.

Asteazkenean Urretxuko liburutegian burutuko da lehena arratsaldeko bostetan hasita, Liburu Galdua izenburuarekin. Haurrak iburutegian istorioak entzun, idatzi edota marraztu ahal izango dute beti ere liburutetik irteerako pertsonaien laguntzarekin.

Ipuinen dekoratuak

Ostegunean Zumarragako iburutegian ipuinen dekoratuak egiteko aukera izango da. Tailer hau, iburutegian urtarilaz geroztik martxan jarritako Irakurzaletasuna Sustatzeko kanpainaren barruan dago. Honen baitan hileroko azken ostegunetan tailerrak izaten dira 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, 17:30ean hasita eta ordubeteko iraupenarekin. Honakoan, haurrek ipuin bat entzun eta bertako eszena bat aukeratuko dute eszenatoki bat irudikatzeko. Horretarako material ezberdina erabiliko dute. Parte hartzeko interesa dutenek, aldezturik eman beharko dute izena iburutegian bertan. Kanpaina honetako tailerrak gero eta arrakastatsuagoak gertatzen ari dira iburutegiko arduradunen arabera, parte-hartze handiarekin.

Ostiralean ipuinetako pertsonaiak kalera ateratzen dira. Hasteko kalejira bat izango da Zumarragako iburutegitik Urretxukora, arratsaldeko bostetan eta ondoren, seietatik zortzietara Areizaga-Kalebarren plazan sei urte bitarteko haurrentzat Txoko Txiki tailerra izango da.

Baita Legazpin ere

Legazpiko iburutegian apirilarekin batera ekin zioten liburuaren eguna ospatzeari. Aste hauetan idazleekin solasaldiak, ipuin kontalarien saioak eta iburutegira bisitak egin dituzte.

Datorren astean haurren bisitek jarraituko dute eta gainera, asteazkenean Zientzilari Zoroak tailerra egingo dute aurretik izena eman duten zortzi urtetik gorako gaztetxoek.